

Normalizazio Txostena

1. DATU OROKORRAK

Txosten zk.	2005/
Data	(2005-03-03)

Aztergaia	'lengoia' (<i>hipertestua markatzeko lengoia, markatzeko lengoia hedagarri...</i>)
Eskaeragilea	Terminologia Batzordea: <i>Bulegotika Hiztegia</i> (Batzorde Teknikoa)
Txostengilea	Xabier Alberdi Larizgoitia (Terminologia Batzordeko kidea)
Xedea	'lengoia' terminoa baztertzea eta haren ordez 'hizkuntza' proposatzea
Proiektua	<i>Bulegotika Hiztegia</i> (aurrerantzean, BH)

2. INFORMAZIO TERMINOLOGIKOA

TR	LENGOIA	KG	izena	IT	BH
SN		KG		IT	
EE	Informatika			EK	

DF	<p>fr. LANGAGE n. m.</p> <p>[Eremua : informatique ; langage de programmation informatique]</p> <p>English language</p> <p>Définition :</p> <p>Ensemble organisé de symboles, de mots-clés, de caractères et de règles (instructions et syntaxe) utilisé pour adresser des commandes à l'ordinateur et assurer la communication avec la machine.</p>	IT	AI91 (GDT)
-----------	--	-----------	---------------

**Normalizazio-txostena: lengoaia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

<p>DF</p>	<p>HIZKUNTZA [Eremua: hizkuntzalaritza]</p> <p>iz. 1. Giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea. 2. HIZKL. Saussure-ren teoriak geroko hizkuntzalaritza modernoan, delako HITZEZKO ADIERAZPIDEA SISTEMA EDO EGITURA ABSTRAKTUTZAT HARTUA, haren erabilerari (hizketari) kontrajarria. 3. (hed.) Lengoaia. (...) Hizkuntza, adierarik zabal eta irekienean, pentsamendua adierazi eta komunikatzeko gizakiak duen gaitasuna (lengoaia) gauzatzeko, komunitate linguistiko bakoitzak erabiltzen duen ahozko sistema da. Hizkuntzalarientzat lan zaila izan da aztergai hau zehaztea, definitu eta deskribatu ahal izateko. Hizkuntzalaritza modernoan gai honi buruz egindako lan gehienek F. de Saussurek proposatutako kontzeptu-oposizio garrantzitsuenean (hizkuntza/hizketa oposizioan) dute oinarria. SAUSSUREREN ARABERA, HIZKUNTZA KOMUNITATE BATEKO INDIBIDUO GUZTIEK BERE ESKU DUTEN KODE EDO ZEINU-SISTEMA DA. Sistema hori komunitateko kideen arteko kontratu kolektibo baten modukoa da, indibiduoak ezin du hura sortu edo aldatu. Hizketa hizkuntzaren gauzatze konkretua da, indibiduoak, hizkuntzako baliabide egokiak hautatuz eta hauei izaera materiala emanez, komunikatzean egiten duena. (...)</p>	<p>IT</p>	<p>Harluxet (hizkuntza)</p>
<p>DF</p>	<p>linguistique français</p> <hr/> <p>langue n. f. Équivalent(s) English language</p> <p>Définition : Système de signes vocaux utilisé comme instrument de communication au sein des membres d'une même communauté</p>	<p>IT</p>	<p>AI91 (GDT)</p>
<p>DF</p>	<p>linguistique français</p> <hr/> <p>langage n. m. Équivalent(s) Englis h language</p> <p>Définition : Capacité, propre aux humains, de communiquer et d'exprimer leur pensée au moyen d'une langue.</p>	<p>IT</p>	<p>AI91 (GDT)</p>

**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

DF	<p>LENGOIA NATURAL <i>Definizioa:</i> Pertsonen arteko komunikazioan erabiltzen den lengoia (ahozkoa edo idatzia). Programazio-lengoaiari kontrajartzen zaio.</p> <p>PROGRAMAZIO-LENGOIA <i>Definizioa:</i> Lengoia artifiziala, bereziki eta espresuki ordenagailu-programak adierazteko sortua.</p> <p>HIPERTESTUA MARKATZEKO LENGOIA; sinonimoa: HTML <i>Definizioa:</i> Web arakatzailleek bistara ditzaketen hipertestu-dokumentuak sortzeko lengoia, SGMLaren azpimultzoa, testu-marka edo etiketak ezartzean oinarritua.</p>	IT	Euskalterm
OH		IT	
IR		IT	

es	lenguaje natural	IT	Euskalterm
fr	langage naturel	IT	Euskalterm
en	natural language	IT	Euskalterm
de		IT	
		IT	

es	lenguaje de programación	IT	Euskalterm
fr	langage de programmation	IT	Euskalterm
en	programming language	IT	Euskalterm
de		IT	
		IT	

es	HTML; lenguaje de marcado de hipertexto	IT	BH
fr	HTML; langage de balisage hypertexte; langage HTML	IT	BH
en	HTML; HyperText Markup Language	IT	BH
de		IT	
		IT	

es	XML; lenguaje extensible de marcado	IT	BH
fr	XML; langage de balisage extensible; langage XML	IT	BH
en	XML; eXtensible Markup Language	IT	BH
de		IT	
		IT	

**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

Erlazionatutako terminoak

TR	(IKUSI TXOSTEN HONEN LEHEN ERANSKINA) MARKATZEKO LENGOAIA HEDAGARRI; sinonimoa: XML BASIC LENGOAIA MAKINA-LENGOAIA MIHIZTADURA-LENGOAIA PROGRAMAZIO-LENGOAIA LENGOAIA FORMAL LENGOAIA NATURAL METALENGOAIA GALDEKETA-LENGOAIA BEHE-MAILAKO LENGOAIA SINBOLIKO GOI-MAILAKO LENGOAIA SINBOLIKO OBJEKTU-LEBGOAIA / HELBURUKO LENGOAIA PL1 LENGOAIA LENGOAIA ALGORITMIKO KOMANDO-LENGOAIA TESTUINGURURIK GABEKO LENGOAIA GOI-MAILAKO LENGOAIA BEHE-MAILAKO LENGOAIA PROZEDURA-LENGOAIA / PROZEDURARI ZUZENDUTAKO LENGOAIA SIMULAZIO-LENGOAIA ITURBURU-LENGOAIA ESPEZIFIKAZIO-LENGOAIA LENGOAIA EGITURATU LENGOAIA SINBOLIKO DATU-BASEETAKO LENGOAIA / DATU-BASE LENGOAIA LENGOAIA ERAZAGUTZAILE / LENGOAIA DEKLARATIBO LENGOAIA FUNTZIONAL LENGOAIA AGINTZAILE / LENGOAIA INPERATIBO OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO LENGOAIA / OBJEKTUEI ZUZENDUTAKO LENGOAIA ...	KG	izena	IT	Euskalterm
SN		KG		IT	
EE					EK

DF		IT	
OH		IT	
TS		IT	
IR		IT	




es		IT	
fr		IT	
en		IT	
de		IT	

**Normalizazio-txostena: *lengoaia* > *hizkuntza* [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

	IT
--	-----------

3. DOKUMENTAZIOA

Euskarazko obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

lengoaia <i>Zah.</i> h. mintzaira , hizkuntza	IT	AM21 (Hizt. Batua)
lengoaie , lengoaia (Volt 89, Urt III 337, Chaho), lenguaia (SP, T-L), lenguaje (Chaho), lengaje . <i>Lengua (...). Tr. Documentado sobre todo al Norte y en textos antiguos. Emplean la forma <i>lengoaie (...)</i></i>	IT	BA35 (Orotariko Euskal Hiztegia)
lengoaie . <i>iz.</i> (1545; <i>lenguaje</i> 1626; <i>lengaje</i> 1666; <i>lengoaia</i> 1643). <i>Zah.</i> (G. er.). <i>Mintzaira</i> , <i>hizkuntza</i> . <i>Latinez, frantsesez eta anitz beste lengoaie aberatsez.</i>	IT	BB38 (Euskal Hiztegia)
IKUSI LEHEN ERANSKINA: Euskaltermen 'LENGOAIA' bultzatu da sistematikoki informatika-arlorako	IT	Euskalterm
Harluxet hiztegi entziklopedikoak ere 'LENGOAIA' dakar sistematikoki informatika-arlorako.		Harluxet Hizt. Entzickl.
LENGOAIA Adierak 1  <i>iz.</i> h. mintzaira , hizkuntza Lengua; lenguaje 2  <i>iz.</i>  Inform. Lenguaje <i>Programazio-lengoaia</i> : lenguaje de programación	IT	BB05 (Elhuyar hizt.)
LENGUAJE /1 m <i>hizkuntza</i> , <i>mintzaira</i> ; INFOR HIZKUNTZA . /2 <i>hizkera</i> : el lenguaje coloquial, lagunarteko <i>hizkera</i> ./□ lenguaje de los sordomudos, gormutuen <i>hizkuntza</i> . / LENGUAJE DE PROGRAMACIÓN, PROGRAMAZIO HIZKUNTZA.	IT	GZ49 (Hizt. Handia)
LENGOAIA h. mintzaira , hizkuntza	IT	BB19 (3000 hizt.)
	IT	
	IT	
	IT	

Beste hizkuntzetako obra lexikografiko edo terminologikoetatik bilduak

	IT
	IT

	IT	
	IT	
	IT	
	IT	
	IT	
	IT	
	IT	
	IT	

Adituengandik bilduak

Euskara batuaren ajeak, (126. or.) Ibon Sarasola

LENGOAIA. Gainerako hizkuntzek bezala jokatu bagenu, *lengoaia* ez litzateke euskara batuko hitza izango. Horrela sartu zen hitz hori gure artean: hizkuntzalaritzan *lingua* / *langue* eta *lenguaje* / *langage* bereizten dira; guk ere bereizi behar genituzke; horretarako dugu *lengoaia* hitz zahar jatorra.

Arrazoibide honen urratsak, ordea, akatsez beteak daude. Lehenik, ez dute hizkuntza guztiek bereizketa hori egiten. Alemanak, esaterako, ez du egiten, bietarako *Sprache* erabiltzen du, arazorik gabe, antza, eta ingelesezko *language* / *speech*, bereizketa ez da besteen kidea. Adibidez, frantsesezko *langue artificielle-en* ingeles kidea *artificial langage* da. Orobat gertatzen bide da errusieraz. Hortaz, esan daiteke bereiztea frantsesarena dela, eta puntu honetan haren morroi den espainolarena.

Bigarrenik, esan gabe doa bereizketa egin duten hizkuntzek arbitrarioki, abenikoz edo egiunez, egin dutela delako bereiztea, *Le Robert* etimologikoan eta Joan Corominesen gaztelaniazkoan eta katalanean ikus daitekeenez.

Hirugarrenik, K. Mitxelenak -euskaraz, linguistikaz gehien eta ongien aritu den idazleak- ez zuen inoiz bereizketaren premiarik ikusi. Harena da pasarte hau, "lengoaia"-ren definizio bikainetako bat ematen duena: *Hizkuntzak -hizkuntza bakoitzak, alegia, ez gizontzen gaituen mintzatzeko gaitasunak- ez gaitu behinbetiko eta betiereko "markatzen". Zertarako "zehaztasun" gehiago? L. Bloomfield-en *Language* entzutetsuaren euskal itzulpenaren izenburua *Hizkuntza* da; Itziar Laka itzultzaileak esan zidanez, ez zitzaion burutik pasa *Lengoaia* izan zitekeenik.*

Laugarrenik, bereizketa egin duten hizkuntzek, eguneroko mintzairan *bizirik* dauden bi hitzez baliatuz egin dute, bakoitzak beretik hartuz, ez denek nazioarteko hitz beraz baliatuz. Ez da hori *lengoaia-ren* kasua. Alde batetik, tradizio hoberena duen aldaera *lengoaje* da (Etxepare, Leizarraga, Tartas, Kardaberaz), gero *lenguaia* (Etxeberri Sarakoa, Goihetxe, Laphitz) eta *lenguaje* (zuberotar zaharrak); *lengoaia-rena*, adibide bakar bat aurkitu dut segurua, Axularrena: *bertze hizkuntza eta lengoaia komun guztiak*.


Bosgarrenik, Axularren pasarte horretan bezala, *lengoaia* / *lengoaje* / *lenguaje* hitza *hizkuntza-ren* erabateko sinomimoa da gure tradizioko beste guztietan. Azkenik, *lengoaia* / *lengoaje* / *lenguaje-ren* erabilera XVIII. mendearen erdialdeaz gero, erabat marjinala da. Bakan agertzen da Iparraldean, eta are bakanago Hegoaldean, eta askotan euskara gaiztoaren adibide gisa, Mogelen *Peru Abarka-n* Maisu Juanen ahoan, eta D. Agirrerren *Kresala-n*, indianoarenean: "Zer *kostunbreak* eurenak! Artoa jan, sokilla jo ta iñok eztakian *lenguaje*an itz egin, Ameriketara ikusi ditudan *salbajeak* legez" (letra etzanak Agirrerrenak dira). Hitz hau da zientzia euskara jasorako proposatzen digutena!

**Normalizazio-txostena: lengoaia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

Kontua are irigarriagoa da, euskarak baduelako, bereizketa premia larria duenarentzat, hitz txukun eta egokia, *mintzaira*, beste hizkuntzetan aukeratu dituztenen baldintzak betetzen dituena. Nolanahi ere, bada besterik *lengoaia-
ren* inguruan: ez dakit zer ezpezialitate liburutan edo batek dakien fakultateko sail baten izenean⁴⁰ *lengoaia* erabiltzea, irigarri, baina tira. Baina lehen irakaskuntzako ume baten liburuaren azalean *lengoaia* letra handietan ikusteak, lazgarriki erakusten digu noraino galdua dugun, aurreiritzien eta ezjakintasunaren basamortuan, euskararen barne normalizazioaren iparra.

40 Adiskide ditudan profesional on batzuk lanean ari diren sail batez ari naiz besteak beste, Informatika Fakultateko "Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila" izena duenaz. Aitortu behar dut hori irakurri nuenean ez nuela ulertu Sailaren erdal izenean dioena "Lenguajes y Sistemas Informáticos", baizik eta "Lenguaje y Sistemas Informáticos". Barka atrebentzia, baina "Informatika lengoaia eta sistemak" argiagoa iruditzen zait, *sistemak*, bakarrik balihoa ez litzatekeelako ezer ("zer sistema?" galdetuko genuke bestela), eta *lengoaia*. aldiz, bai. Eta harira bihurtuz, zertan da teknikoago edo zehatzago *Lengoaia informatikoak*, *Hizkuntza informatikoak* baino?

	IT	
	IT	

Document 1		
<i>Subject</i>	Documentation - Information (DI) Linguistics - Language & Literature (LA)	
ES		
(1) TERM	lengua	
<i>Reference</i>	Carlos García-Romeral, documentalista	
DA		
<i>Definition</i>	Et sprog er et system af konventionelle tegn, der samtidigt fungerer som betegnelser	
<i>Reference</i>	Prof. Spang-Hanssen	
(1) TERM	sprog	
<i>Reference</i>	Prof. Spang-Hanssen	
<i>Note</i>	{NTE} Begrebsfaeren Sprog baerer praeg af en bestraebelse paa at drage nytte af den alment tegnteoretiske opfattelse, dvs. at opfatte begrebet sprog mere alment end i traditionel sprogvidenskab	
DE		
<i>Definition</i>	eine Sprache ist ein System von konventionalisierten Zeichen, die gleichzeitig als Bezeichnungen fungieren	
<i>Reference</i>	TID - BW II-30-I	
(1) null	-	
<i>Reference</i>	TID - BW II-30-I	
<i>Note</i>	{NTE} das Begriffsfeld Sprache ist gekennzeichnet durch das bemuehen, den allgemeinen zeichentheoretischen Ansatz	



**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

		nutzbar zu machen, d.h. den Begriff der Sprache allgemeiner als in der traditionellen Sprachwissenschaft zu fassen
EL		
(1)	TERM	γλώσσα
	<i>Reference</i>	ΕΛΕΤΟ/Συλλογικό μέλος ΕΛΟΤ/ΤΕ48/ΟΕ1 "Ορολογία Πληροφορικής"-Εγκριση ΓΕΣΥ
EN		
(1)	TERM	language
	<i>Reference</i>	TID - BW II-30-I
FI		
(1)	TERM	kieli
	<i>Reference</i>	TSK
FR	Definition	ensemble de caractères, de conventions ou de règles employé pour communiquer des informations
	<i>Reference</i>	AFNOR
(1)	TERM	langage
	<i>Reference</i>	AFNOR
IT		
(1)	TERM	linguaggio
	<i>Reference</i>	BTL
NL		
(1)	TERM	taal
	<i>Reference</i>	Ing. J. H. de Wijn, NOBIN
PT		
(1)	TERM	linguagem
	<i>Reference</i>	Grande Dic.Língua Port.,Amigos do Livro,tomo VI,p.468
SV	Definition	mänskligt system för kommunikation, känslouttryck och konstnärliga ändamål, med en uppsättning ord och ordförbindelser som kombineras enligt vissa grammatiska regler
	<i>Reference</i>	Nationalencyklopedins ordbok.-1995
(1)	TERM	språk
	<i>Reference</i>	Nationalencyklopedins ordbok.-1995

Document 2						
<i>Subject</i>	Education - Training (ED) Linguistics - Language & Literature (LA)					

**Normalizazio-txostena: lengoia> hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

ES	
(1) TERM	curso de idioma
	Reference DOCE C 25/1994, p. 48/2
DA	
(1) TERM	sprogkurs
	Reference EFT C 25/1994,s.48/2
DE	
(1) TERM	Sprachkurs
	Reference AbEG C 25/1994,S.48/2
EL	
(1) TERM	γλωσσικό μάθημα
	Reference EEEK C 25/1994,σ.48/2
(2) TERM	μάθημα ξένης γλώσσας
	Reference EEEK C 25/1994,σ.48/2
EN	
(1) TERM	language course
	Reference OJEC C 25/1994,p.48/2
FR	
(1) TERM	cours de langue
	Reference JOCE C 25/1994,p.48/2
IT	
(1) TERM	corso di lingua
	Reference GUCE C 25/1994,p.48/2
NL	
(1) TERM	taalcursus
	Reference PbEG C 25/1994,blz.48/2
(2) TERM	taalkursus
	Reference PbEG C 25/1994,blz.48/2
PT	
(1) TERM	curso de lingua
	Reference JOCE C 25/1994,p.48/2

Document 3a					
Subject	Documentation - Information (DI) Automation - Computer Science - Data Processing - Information Technology (AU)				

**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

EN	Definition	a language which has evolved and whose rules reflect current usage without necessarily being explicitly prescribed
	Reference	ISO - TC 46 141E
(1)	TERM	natural language
	Reference	ISO - TC 46 141E
DA	Definition	et naturligt sprog er et historisk udviklet talt sprog og det dertil eventuelt tilordnede skriftsprog, der tjener til en gruppe menneskers primaere og hovedsagelige kommunikation
	Reference	Prof.Spang-Hanssen
(1)	TERM	naturligt sprog
	Reference	Prof.Spang-Hanssen
DE	Definition	eine historisch gewachsene Laut- und ggf. die ihr zugeordnete Schriftsprache, die zur primaeren und ueberwiegen den Kommunikation einer Gruppe von Menschen dient
	Reference	Terminologie der Information und Dokumentation
(1)	TERM	natürliche Sprache
	Reference	Stammerjohann,1975,S.286; Terminologie der Information und Dokumentation
	Note	{NTE} Gegensatz:Kunstsprachen wie Esperanto oder die Formalen Sprachen
ES		
(1)	TERM	lenguaje natural
	Reference	Carlos García-Romeral, documentalista
(2)	TERM	lengua natural
	Reference	Carlos García-Romeral, documentalista
FR	Definition	a) langage naturel: langage qui évolue et dont les règles sont déduites de l'usage courant sans être nécessairement fixées d'une manière formelle; b) langue naturelle: langue spécifique à l'espèce humaine dans sa totalité; instrument de communication et d'expression, elle repose sur des propriétés universelles propres à tout langage humain
	Reference	1)et DF a):ISO-TC 46 141F
(1)	TERM	langage naturel
	Reference	et DF a):ISO-TC 46 141F
(2)	TERM	langue naturelle
	Reference	et DF b):Dubois 1973
IT	Definition	un linguaggio sviluppatosi nel corso del tempo, le cui regole sono date dall'uso corrente e non determinate a priori in modo formale
	Reference	CID
(1)	TERM	linguaggio naturale
	Reference	CID
NL	Definition	natuurlijke taal:een historisch gegroeide taal waarvan de regels uit het spraakgebruik voortvloeien en niet aan de hand van een vastgesteld schema worden opgesteld
	Reference	1)Ing.J.H.de Wijn,Nobin

(1)	TERM	omgangstaal
	Reference	Ing.J.H.de Wijn,Nobin
(2)	TERM	naturlijke taal
	Reference	BTL

Document 3b					

Subject	Automation - Computer Science - Data Processing - Information Technology (AU) Standardisation - Metrology (NO)
----------------	---

EN	
(1)	TERM natural language
	Reference ISO 2382-7:1977,Information processing systems:Computer programming
	Note {DOM} Data processing:Software:Programming languages
FR	Definition langage dont les règles sont déduites de l'usage courant plutôt que fixées d'une manière formelle
	Reference Z 61-000:décembre 1980,Vocabulaire international de l'informatique
(1)	TERM langage naturel
	Reference Z 61-000:décembre 1980,Vocabulaire international de l'informatique
	Note {DOM} Traitement des données:Logiciel:Langages de programmation


Document 3c					

Subject	Automation - Computer Science - Data Processing - Information Technology (AU)
----------------	---

EN	Definition a language whose rules reflect and describe current usage rather than prescribed usage
	Reference Sippl:DCD
(1)	TERM natural language
	Reference Sippl:DCD
DA	
(1)	TERM naturligt sprog
	Reference Ekspertgruppe under M.Boman

**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

DE	
(1) TERM	natürliche Sprache
<i>Reference</i>	Ferretti:WB der Datentechnik,1996
ES	
(1) TERM	lenguaje natural
<i>Reference</i>	Termcat
FI	
(1) TERM	luonnollinen kieli
<i>Reference</i>	PC tietotekniikan käsitteet ja sanasto
FR	Definition langage dont le vocabulaire et la grammaire sont fixés par l'usage courant
<i>Reference</i>	TITI H542-1
(1) TERM	langage naturel
<i>Reference</i>	TITI H542-1
IT	Definition linguaggio in cui le persone comunicano verbalmente o per iscritto
<i>Reference</i>	Cioffi-Falzone,Manuale di informatica,1988
(1) TERM	linguaggio naturale
<i>Reference</i>	Cioffi-Falzone,Manuale di informatica,1988
NL	Definition taal waarvan de regels zijn afgeleid uit het gangbare gebruik i.p.v. op formele wijze te zijn opgesteld, zoals bij een programmeertaal
<i>Reference</i>	SAMSOM INFORMATICA WB
(1) TERM	natuurlijke taal
<i>Reference</i>	SAMSOM INFORMATICA WB
PT	
(1) TERM	linguagem natural
<i>Reference</i>	DGSI/MJ-MORVAN84
SV	Definition språk för vilket reglerna grundas på allmänt bruk snarare än på föreskrivna regler
<i>Reference</i>	SS 01 16 01.-utg 4.-1989
(1) TERM	naturligt språk
<i>Reference</i>	SS 01 16 01.-utg 4.-1989

Document 3d				
	<i>Subject</i>	Automation - Computer Science - Data Processing - Information Technology (AU)		
EN				
(1) ABBREV	NL			

	<i>Reference</i>	PBNA Wrdb.Automat.
(2)	TERM	Natural language
	<i>Reference</i>	PBNA Wrdb.Automat.

Document 4	
<i>Subject</i>	Automation - Computer Science - Data Processing - Information Technology (AU)
EN	<p><i>Definition</i> an artificial language designed to generate or to express programs</p> <p><i>Reference</i> ISO/DIS/I</p> <p>(1) TERM programming language</p> <p><i>Reference</i> ISO/DIS/I</p>
DA	<p><i>Definition</i> sæt af ord med tilhørende regler for syntaks, der anvendes til udarbejdelse af programmer</p> <p><i>Reference</i> Arbejdslivets terminologi(HHK)</p> <p>(1) TERM programmeringssprog</p> <p><i>Reference</i> Arbejdslivets terminologi(HHK)</p>
DE	<p><i>Definition</i> zum Abfassen von Programmen geschaffene Sprache</p> <p><i>Reference</i> DIN 44300,6.82</p> <p>(1) TERM Programmiersprache</p> <p><i>Reference</i> DIN 44300,6.82</p> <p><i>Note</i> {NTE} Programmiersprachen lassen sich einteilen z.B.nach der Maschinennähe,der Maschinenunabhängigkeit oder dem Anwendungszweck</p>
EL	<p><i>Definition</i> τεχνητή γλώσσα σχεδιασμένη για τη δημιουργία ή την έκφραση προγραμμάτων</p> <p><i>Reference</i> E.II.Y.</p> <p>(1) TERM γλώσσα προγραμματισμού</p> <p><i>Reference</i> ΕΠΙΥ</p>
ES	<p>(1) TERM lenguaje de programación</p> <p><i>Reference</i> Testillano Madrid, Dicc. Oxford</p>
FI	<p>(1) TERM ohjelmointikieli</p> <p><i>Reference</i> ATK-sanakirja</p>
FR	<p><i>Definition</i> langage artificiel conçu pour la génération ou l'expression de programmes</p> <p><i>Reference</i> ISO/DIS/I</p> <p>(1) TERM langage de programmation</p>

**Normalizazio-txostena: *lengoaia* > *hizkuntza* [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

	<i>Reference</i>	ISO/DIS/I
IT	Definition	utilizzato per scrivere un programma. Si possono avere linguaggi macchina, di assemblaggio o ad alto livello
	<i>Reference</i>	Slater/Bronson:Micropr.in pratica.
(1)	TERM	linguaggio di programmazione
	<i>Reference</i>	Slater/Bronson:Micropr.in pratica.
NL	Definition	symbolische taal die gebruikt wordt om computerprogramma's te schrijven
	<i>Reference</i>	IBM:Comp.term.
(1)	TERM	programmeertaal
	<i>Reference</i>	IBM:Comp.term.
PT	Definition	linguagem artificial concebida para produzir ou exprimir programas
	<i>Reference</i>	IPQ/SC3/CT78
(1)	TERM	linguagem de programação
	<i>Reference</i>	IPQ/SC3/CT78
SV	Definition	språk som används i datorprogram
	<i>Reference</i>	SS 01 16 01.-utg 4.-1989
(1)	TERM	programspråk
	<i>Reference</i>	SS 01 16 01.-utg 4.-1989
(2)	TERM	programmeringsspråk
	<i>Reference</i>	SS 01 16 01.-utg 4.-1989

4. PROPOSAMENA

TR	HIZKUNTZA	KG	izena	IT	
TR		KG		IT	
Arrazoibidea					

ARRAZOIBIDEA

Nire iritziz, eta EHUko Euskara Zerbitzuaren iritziz, oro har euskaraz ez dago zertan kalkatu, ezta informatikaren arloan ere, latin-hizkuntzetan egin ohi den bereizkuntza formal hau: *lengua / lenguaje* (fr *langue / langage*; it *lingua / linguaggio*; ca *llengua / llenguatge*...). Gure ustez, *hizkuntza* erabili behar da; baita informatika-arloan ere. Honela laburtu daitezke gure arrazoibide eta irizpideak:

- Nazioarteko hizkuntzetan, latin-hizkuntzetan baizik ez da egiten delako bereizkuntza formal** (fr *langue/langage*; es *lengua/lenguaje*...). Dirudienez, frantsesaren eraginez hedatu da aurkaritza inguruko hizkuntzetara; eta abenikoz finkatu da bereizkuntza, eguneroko mintzairan bizirik dauden bi hitzez baliatuz. Latin-hizkuntzetatik kanpora, ordea, bereizkuntza ez da batere nazioartekoa: ingelesez (*language*), alemanez (*Sprache*), danieraz (*sprog*), nederlanderaz (*taal*) eta suedieraz (*språk*), esaterako, hitz berbera erabiltzen dute "hizkuntza" eta "hizkuntza formal edo artifiziala" adierazteko (ik. gorago ageri den dokumentazioa: Eurodicautom-etik jaso ditudan 'document 1-4').

Termino edo forma bakarra edukitzea benetako terminologia-arazo bada, nola moldatzen dira informatikaren eremuan ingelesez termino bakarrarekin (*language*)? Ez dirudi arazo handirik dutenik, eta, inon sortzen baldin bada, ingelesez sortzen eta garatzen dira informatika-ezagutzak eta, horiekin batean, arlo horretako espezialitate-hizkuntza.

- Terminologiaren ikuspegitik, fr *langue/langage* bereizkuntza formalari ez dagokio funtsezko bereizkuntza kontzeptualik, ezta informatikaren arloan ere.** Informatika-arloko *langage* kontzeptua ("Ensemble organisé de symboles, de mots-clés, de caractères et de règles (instructions et syntaxe) utilisé pour adresser des commandes à l'ordinateur et assurer la communication avec la machine.") oso hurbil dago hizkuntzalaritza-arloko *langue* kontzeptutik ("Saussurerearen arabera, hizkuntza komunitate bateko indibiduo guztiek bere esku duten kode edo zeinu-sistema da."): izatekotan, *langue* orokorraren azpiadiera bat edo dateke informatika-arloko *langage* delakoa.

Bestalde, ez dirudi informatika-arloan termino beregain gisa *langage* soila dagoenik. Izan ere, badirudi konplexuagoak direla benetako unitate terminologiko eta kontzeptualak: a) hitz-elkarteak (*programazio-lengoia*); b) izena + izenondoa (*lengoia formal, lengoia natural, lengoia artifizial*...); c) izenlaguna + izena (*behe-mailako lengoia*...), eta abar (1).

(1)

HITZ-ELKARTEAK (PROGRAMAZIO-LENGOIA)	IZENA + IZENONDOA (LENGOIA FORMAL)	IZENLAGUNA + IZENA (BEHE-MAILAKO LENGOIA)
MAKINA-LENGOIA	LENGOIA NATURAL	MARKATZEKO LENGOIA HEDAGARRI; sinonimoa: XML
MIHIZTADURA-LENGOIA	LENGOIA ALGORITMIKO	BASIC LENGOIA
PROGRAMAZIO-LENGOIA	BEHE-MAILAKO LENGOIA SINBOLIKO	BEHE-MAILAKO LENGOIA SINBOLIKO
GALDEKETA-LENGOIA	GOI-MAILAKO LENGOIA SINBOLIKO	BEHE-MAILAKO LENGOIA SINBOLIKO

**Normalizazio-txostena: lengoia > hizkuntza [informatika]
(X. Alberdi, 2005-03-03)**

OBJEKTU-LENGOIA / HELBURUKO LENGOIA	LENGOIA EGITURATU	OBJEKTU-LENGOIA / HELBURUKO LENGOIA
PL1 LENGOIA	LENGOIA SINBOLIKO	TESTUINGURURIK GABEKO LENGOIA
KOMANDO-LENGOIA	LENGOIA ERAZAGUTZAILE / LENGOIA DEKLARATIBO	GOI-MAILAKO LENGOIA
PROZEDURA-LENGOIA / PROZEDURARI ZUZENDUTAKO LENGOIA	LENGOIA FUNTZIONAL	BEHE-MAILAKO LENGOIA
SIMULAZIO-LENGOIA	LENGOIA AGINTZAILE / LENGOIA INPERATIBO	PROZEDURA-LENGOIA / PROZEDURARI ZUZENDUTAKO LENGOIA
ITURBURU-LENGOIA		DATU-BASEETAKO LENGOIA / DATU-BASE LENGOIA
ESPEZIFIKAZIO-LENGOIA		OBJEKTUEI ORIENTATUTAKO LENGOIA / OBJEKTUEI ZUZENDUTAKO LENGOIA

3. **Gure iritziz, hitz-elkarketaren bidez sorturiko esapide terminologikoetan eta izenlagunez nahiz izenondo horniturikoetan gutxitan gertatzen da zehaztu beharra, elkartearen mugakizunak berak (2), izenlagunak berak (3), edo izenondoak berak (4) desanbiguatzeko baitute terminoa, eta zehazten erabileremua:**

(2) *makina-hizkuntza, programazio-hizkuntza, informatika-hizkuntza, galdeketa-hizkuntzak...*

(3) *laugarren belaunaldiko hizkuntzak, orrialdearen deskribapenerako hizkuntzak...*

(4) *hizkuntza algoritmiko, hizkuntza sinboliko, hizkuntza erazagutzaile/deklaratibo, hizkuntza agintzaile/inperatibo...*

Ez dugu noski ezer *mintzaira* hitzaren aurka, baina *hizkuntzaren* sinonimo petotzat daukagu.

4. **Hala ere, bi hizkuntza mota horien artean, testuingururen batean anbiguotasunik sortuz gero, edo bestela ere zehaztu nahi izanez gero, baditugu desanbiguatzeko estrategia egokiak:** a) adjektibo egokiez baliatzea (5); b) aukera denean, adiera murriztagoko hitzez baliatzea (6):

(5) *hizkuntza naturala, mintzatua, ahozkoa, formala, artifiziala, hitzez bestekoa...*

(6) *solas, hizketa, berbeta, hizkera...*

5. **Alde batetik, gure irizpidea guztiz bat dator Euskaltzaindiak Hiztegi Batuan eman duen gomendioarekin (lengoia: *Zah. h. mintzaira, hizkuntza*). Beste alde batetik, irizpide zabal horretan erantzun bat ematen zaio arloko adituek zenbaitetan sumatzen duten zehaztu edo desanbiguatu beharrari. Beraz, zentzu hertsian, nekez esan daiteke terminologia-arazo baten aurrean gaudenik. Irizpide terminologikoen arabera, hitz solteen mailan ez, baizik izendapen edo unitate terminologikoen mailan saihestu**

behar dira anbiguotasunak. Eta goiko (1)eko izendapenetan ez da sortzen gatazkarik edo anbiguotasunik, *lengoaia* hitzaren ordez *hizkuntza* ipintzen badugu.

Gure ustez, artifizial samarrak dira informatikariek aipatu ohi dituzten zailtasun eta eragozpenak, halakoak erraz asko gainditu baitaitezke gure irizpidea aplikatuz (alegia, esapide nahasgarriak desanbiguatuz):

(7)

“**Lengoaia Naturalaren** Prozesamendua” esaten diogun arloan (bidenabar: informatikan ohikoagoak diren beste “**lengoaia**” batzuetatik bereizi nahiari zor zaio “naturalaz” dihardugula zehaztu behar hori), hizkuntza automatikoki (ordenagailu bidez) tratatzea, lantzea dugu helburu. Konputagailu-programa batez giza hizkuntza tratatuko bada, hizkuntza hori formalki deskribatu beharra dago. Hizkuntzok deskribatzeko hainbat formalismo eta **lengoaia formal** horien sintaxi-semantikak ere deskribatu beharra dago zehatz-mehatz, **programazio-lengoaiekin** deskribatzen diren modu berean: horretarako ere badira **lengoaiak** (**meta-lengoaiak**, zehatzago esanda)...

“**Hizkuntza Naturalaren** Prozesamendua” esaten diogun arloan (bidenabar: informatikan ohikoagoak diren beste “**hizkuntza**” batzuetatik bereizi nahiari zor zaio “naturalaz” dihardugula zehaztu behar hori), hizkuntza automatikoki (ordenagailu bidez) tratatzea, lantzea dugu helburu. Konputagailu-programa batez giza hizkuntza tratatuko bada, hizkuntza hori formalki deskribatu beharra dago. Hizkuntzok deskribatzeko hainbat formalismo eta **hizkuntza formal** horien sintaxi-semantikak ere deskribatu beharra dago zehatz-mehatz, **programazio-hizkuntzenak** deskribatzen diren modu berean: horretarako ere badira **hizkuntza formalak** (**metahizkuntzak**, zehatzago esanda)...

6. **Informatika-arloan nagusitu den proposamenak (*lengoaia*: gazt. *lenguaje* / *hizkuntza*: gazt. *lengua*) ez ikusi egiten dio, eta beraz bizkarra ematen, Euskaltzaindiaren gomendioari (*LENGOAIA Zah. h. hizkuntza, mintzaira*). Ikus dezagun zergatik.**

Egia da Hiztegi Batuko Batzordeak *lengoaia* hitza “informatikako erabileremura mugatzea” proposatu zuela. Hona Hiztegi Batuko Batzordearen proposamena:

“**lengoaia**: 33.111.21: Informatikako erabileremura mugatzekoa da; besteetan ez dago forma honen beharrik: cf. *mintzaira*, *hizkuntza*.”

Baina egia da, orobat, Euskaltzaindiak ez zuela jaso Hiztegi Batuan Hiztegi Batuko Batzordearen proposamen hori. Beraz, hortik zera ondoriozta daiteke: **Euskaltzaindiak ez zuen aintzat hartu *lengoaia* informatika-arloko terminotzat hartzeko proposamena (alegia, *isolamendu* eta antzeko beste ‘termino’ batzuekin ez bezala jokatzea erabaki zuen).**

7. *Lengoaia* informatikarako aldezen dutenek Hiztegi Batuko lantaldearen irizpen honi eusten diote:

(8)

HIZTEGI BATUKO LANTALDEAREN AKTA (2003-07-08)

3. EHUko Informatika Fakultatetik *lengoaia* hitzaz iritsitako galderari ondokoa erantzungo zaio: "a) Lantaldeak bere garaian aztertu zuen forma, proposamen jakin bat eginez; b) Euskaltzainek berariaz aztertu zuten ondoren, eta "Zah. h. mintzaira, hizkuntza" markak dagozkiola erabaki; c) dioena dio arauak, eta ez besterik, hau da: ez du hitza debekatzen; are gutxiago arlo jakin batean erabiltzea (ik. Hiztegi Batua-ren sarrerako

argibideetan *kartera* baztertzekoaz diharduen atala¹); d) hortik harakoak erabiltzaileari dagozkio, eta ez lantalde honi".

Aurreko puntuan saiatu gara erakusten, gure iritziz, inplizituki zer dioen arauak (Euskaltzaindiak berriaz baztertu zuen *lengoaia* hitza informatikan onartzeko proposamena). **Horregatik ez dira parekagarri, gure ustez, *kartera* eta *lengoaia*.** Gainera, gorago esplikatzen denez, ***lengoaia/hizkuntza* bereizkuntza formalari ez dagokio funtsezko bereizkuntza kontzeptualik. Alegia, informatika-arloko *lengoaia* terminoari ez dagokio bestelako adiera bat, *hizkuntza*-k duen oinarritzko adieraz bestekoa, haren kide hurbila **baizik**; gehienez ere, *hizkuntza*ren azpiadieratzat har genezake, baina ez bestelako adieratzat. Izan ere, *hizkuntza* berezi batzuk edo *hizkuntza mota* batzuk besterik ez dira informatika-arlokoak; baina *hizkuntza*k, azken batean: "zeinu-sistemak" dira batzuk eta besteak; "komunikazio-sistemak" dira biak; sintaxi edo joskera jakin batzuen arabera antolatzen dira batzuk eta besteak; eta "konputagailu edo makinekin" komunikatzea da, funtsean, *lengoaia*ren bereizgarria.**

